

MERX

Imanol Astorga, Gorka Corrales, Asier Landea, June Zuazo eta Maialen Fernandezek eskutik aurrera eramandako gure proiektuak, ezagutza teknologikoak sartzeaz gain, aldaketa prozesu bat ere badu.

Gure enpresaren helburu nagusia egingarria izan daitekeena sortzea da, baina inoiz asmatu ez dena. Horretarako, egungo herritarrek zer nolako beharrak dituzten aztertzea erabaki dugu, eta bitxigintza egokitua sortzearen alde egin dugu, larrialdietan laguntza profesionala eskatzeko.

Gizartean ikus daitekeenez, batzuek laguntza medikoa edo laguntza psikologikoren bat behar izan arren (izango dutenaren beldurragatik eta antzeko beste faktore batzuegatik), ez dute laguntza eskatzeko joera, ezta arrisku handiko egoeretan ere. Horregatik, gure produktuak hirugarren adineko herritarrentzat, genero-indarkeria jasaten duten emakumeentzat, desgaitasunen bat duten herritarrentzat edo ezintasun mentalen bat duten pertsonentzat dira, batez ere.

Jendeak bere egoeraz edo beharrez jakiterik nahi ez duten pertsonentzat ekintza imajinaezina da laguntza eskatzea. Adibidez, adinekoen kasuan, hirugarren adineko pertsonak direla eta lepoaren inguruan larrialdiko botoi batekin joan behar dutela onartzea izugarria da, edo zaila izan daiteke indarkeria fisikoa jasan duten pertsonen abusuak jasan dituztela onartzea, edota oraindik jasaten ari direnak ere eraman ditzakete besteek jakin gabe.

Faktore horiek kontuan hartuta, bitxigintza, imitaziozko bitxiak eta beste osagarri batzuk diseinatu ditugu, jendeari arreta ematen ez diotenak, baina erosleentzat onuragarriak direnak; izan ere, mikrotxipa dute, eta, behar izanez gero, laguntza profesionala bidaliko da arriskuaren berri eman den lekura. Informazio hori guztia ondorengo dokumentuetan garatuko da.